



Munduko ekonomia Krisiaren diagnosia

M A H A I - I N G U R U A

■ Andoni Etxebeste ■ Mikel Zurbano

IRITZIAK

- Mari Carmen Gallastegi • Solange Mariluz
- Monica Gago • Joseba Barandiaran

Nor kutsatuko ote du AEBetako eztulak?

Ekonomialari batzuek zalantzan jartzen dute mundu mailako ekonomian gaur gaurkoz krisirik dagoenik; geldialdia bai, finantza krisia ere bai, baina oraindik itxaron behar da krisi orokorraz hitz egiteko. Beste batzuek argi dute, globalizazioaren lehen krisi handiaren hasieran gaude. Diagnosiaren bila, bi ekonomialari jarri ditugu mahaian, bata irakaskuntza mundukoa eta bestea finantzetako, eta solasaldiak argi printza interesgarriak utzi ditu munduko ekonomiaren ur uherretan murgiltzeko. Gaixorik zegoela eta Carmelo Urdangarinek ezin izan zuen mahai-inguruan izan.

■ **Xabier Letona - Nagore Irazustabarrena**
Mahai-inguruko argazkiak: Karlos Corbella

Bakoitzaren diagnosiarekin hasiko gara: Mundu mailan bizi den krisi hau zein eratakoa da? 1929ko eta 1973ko krisi handien modukoa izan daitekeela uste duzue? Ala, AEBtatik hasita, mendebaldeko hazkunde moteltze bat besterik ez da? Globalizazioaren aroaren lehen krisi handiaren hasiera al da hau?

ANDONI ETXEBESTE. Orain gertatzen dena da, batetik, finantza krisialdia dagoela eta, bestetik, krisialdi ekonomikoa. Eta hori berria da. 1998an, Long Term Capital delakoa lehertu zenean, krisi finantzarioa izan zen eta Amerikako Banku Zentralaren erre-serbaren erabakia dirua pilatzea izan zen, hura berriz martxan jarri ahal izateko. Krisialdi laburra izan zen. Diru injekzio hark helburu bat bilatu zuen, eta helmuga hori inbertsio teknologikoa izan zen. Dirua sartu zuten, sistema engrasatzeko, eta burbuila bat sortu zen, burbuila teknologikoa. Eta burbuila horrek

eztanda egin zuenean, berriro dirua sartu zen. Orduan beste burbuila bat sortu zen, burbuila inmobiliarioa oraingoan, ez soilik AEBetan, esaterako, Espainian ere bai. Burbuila honek ere eztanda egin du, interes tipoak jaitsi dituzte. Dagoeneko gertatu da ekonomiari zegokion gainbehera txikia edo, behintzat, desazelerazioa, eta horri krisialdi finantzarioa erantsi zaio. Beraz, bi ditugu normalean bakarra izaten den tokian. Lehen burbuilak mendean behin edo bitan gertatzen ziren, baina gaurko sistemak, arazo bat dagoen bakoitzean, tipoak jaitsi eta burbuila sortzen du. Badirudi burbuilarik gabe ezin dela bizi.

MIKEL ZURBANO. Bat nator Andoniren diagnostikoarekin. Atzera eginez, gogoan izan behar dugu 90eko hamarkadaren bigarren erdian hainbat shock finantzario izan zirela hainbat herrialdetan, Errusian, Brasilen, Mexikon, Indonesian... Burbuila teknologikoak hainbat erro izan zituen, baina arlo finantzariotik eztanda egin zuela esan daiteke. Eta testuinguru berdinean gaudela uste dut. Globalizazioa nonbait



Mikel Zurbano, ezkerrean, eta Andoni Etxebeste, Lasarte-Oriako industrialdean.

garbi ikusten bada, arlo finantzarioan da. Gero eta errazago mugitzen dira kapitalak herrialde batetik bestera. Estatuak kontrola edo oztopoak ipini beharrean hori erraztu egiten dute.

1929koa eskariaren ikuspegitik etorritako krisia izan zen, konfiantza galera izan zen erosleen aldetik, eta New Deal delakoari esker, gobernua egindako gastu publikoaren bidez gainditu zen krisia. 1973koa nahasketa izan zen. Batetik, eskaintzaren krisialdia izan zen, produkzio erreduak zalantzan jartzen hasiak ziren produktibitate galerak zirela medio. Bestetik, horri petrolioaren atzeraldia erantsi zitzaion. Egungo krisian ere, ikusi beharko da krisi sistemiko bat den, ala ohiko atzeraldi bat besterik ez, baina horri erantsi behar zaio atzeraldia larriagotzen duen elementu bat: petrolioaren eta, oro har, lehengaien garestitzea. Beraz, atzeraldiarekin batera, prezioen igoera inkontrolatua dago. Horrek 70eko hamarkadakoaren antzeko egoera sortzen du: estanflazioa izenekoa.

Zenbait foroetan, handienen foroetan, autoerregulazioak dakartzan arazoaren aurrean interbentzioaren

aldeko jarrera batzuk ikusten hasi dira. Bestetik, inflazioaren aurkako borroka ere piztu behar denez, batzuk antzinako errezeptak antiinflazionistak lehenesten hasi dira. Hori egin du Europako Banku Zentralak eta, besteak beste, NMFren (Nazioarteko Moneta Fundatsa) kritikak jaso ditu. Hor dago gakoa: nondik jo? Interes tasak igo inflazioak beheara egiteko, ala interes tasak jaitsi atzeraldiaren eraginak saihesteko?

A. ETXEBESTE. Gaur egun enpresak nahiko sendo daude eta zorrak, parametro historikoei begira, nahiko txikiak dira. Baina orain zorretan daudenak familiarak dira. Edonon, ez AEBetan bakarrik. Eta hor petrolioak eragin handia dauka: interes tasak gora egiten badu, hipotekak igo egiten dira eta errenta txikitu, baina gasolina igotzen da, berogailua ere bai, eta errenta ere gutxitzen du horrek. Horretan bat dator 1929ko krisialdiarekin. Jende guztiak eskatzen duena tasak jaitea da. Inflazioari begira, herrialde emergenteekin lotuko nuke gaia. Txina, India, Brasil eta horien partaidetzarekin gertatzen dena da nahi dituen

gun produktuetan (plasmako telebistak, grabagai-luak...) ez dagoela inflaziorik, deflazioa baizik, hau da, gero eta merkeago daudela, baina behar ditugun produktuak (petrolio, jangaiak...) gero eta garestiago daudela. Desoreka arraroa dago hor. Inflazioa oso bare egon da azken urteotan erosketan otarrari begira. Baina produktu finantzarioen inflazioa izugarria izan da. Japonia urte luzez egon zen interes tasa hutsean zuela, AEB 1eko tasan mantendu da eta Europa 2an. Dirua ia-ia oparitu egiten zen. Horrek ez du sortu inflaziorik plasmako telebistetan, esaterako, eta are gutxiago soldatatan. Baina burbuila finantzarioak sortu dira han eta hemen. Ekonomia finantzarioaren eta errearen artean oreka bat behar da, eta gertatzen dena da ekonomia finantzarioaren hazkundera ekonomia errearen baina hamar aldiz handiagoa dela. Geldialdia apurka egiten den eraikina da, baina dardara datorrenean goitik behera erortzen da, eta prozesu horretan gaude. Mikelek dioen bezala, horrek interes tasak behera egitea eskatzen du. Europan 4

eta 5 puntuko inflazioaz hitz egiten da, badirudi inflazio handia etor daitekeela, eta horren aurrean, Europako Banku Zentralaren helburua prezioen egonkortasuna da.

M. ZURBANO. Dominique Strauss-Kahn NMFko zuzendari exekutiboak kritika egin dio Europako Banku Zentralari. Eta paradoxikoa dirudi, Strauss-Kahn berak Frantziako Banku Zentralaren sorreran parte hartu zuelako. Baina Europako Banku Zentralaren egitura kritikatzan du egoera ekonomikoaren alde bati soilik begiratzen diolako, monetaren estabilitateari, eta AEBko Banku Zentraletik aldentzen delako, AEBetako bankuak hazkuntza ere helburu baitu.

AEBetako mailegu egoera oso larria da gaur egun. AEBetako zor metatua munduko gainerako herrialde guztiena batuta lortuko genukeena baino handiagoa da. Hegemonia politikoarekin batera, hegemonia ekonomikoa izan du hainbat hamarkadatan. Munduko ekonomiaren lokomotorea izatea ekarri dio horrek.

M a h a i k i d e a k

■ ANDONI ETXEBESTE



Kutxagest-eko zuzendaria

Donostian jaio zen 1962an eta bertan bizi da gaur egun ere. Donostiako EUTGn ikasi zituen enpresa zientziak eta bere lan esperientzia beti garatu izan du Kutxan, tesoreriaren alorrean. Gaur egun Kutxagesteko zuzendaria da.

■ MIKEL ZURBANO



EHUko ekonomia irakaslea

EHUko ekonomia irakaslea da. UEUko ekonomia saileko zuzendari ohia. Beasainen jaioa 1960an, egun Donostian bizi da. Argitarapen ugari dauzka, besteak beste honako liburuak: *Globalizazioa eta autoeraketa*. *Joerak, mugak eta aukerak* (beste batzuekin batera), *Euskal Herriko Ekonomia* (Yolanda Jubeto eta Solange Mariluzekin batera), *Munduko ekonomia: Botereak, disparekotasunak eta egonkortasun-eza kapitalismo globalean*, *Mikroekonomia I* eta *Makroekonomia I*.

Baina bere hiritarren eta erakunde administratibo eta ekonomikoen kontsumo maila bere aukeren gainetik izan du, neurri batean bere hegemoniari esker. Horregatik, dolarraren posizioa galera bidean dagoela gero eta nabarmenagoa da. Neoliberalen artean eragin handia duen Robert Mundell-ek berak aurreikusi du mundu mailako egonkortasun monetariorako ezinbestekoa dela moneta araua aldatzea: besteak beste, garai batean European zegoen moneta saskiaren moduko bat sortzea proposatzen du, hainbat monetaz osatua, horrek egonkortasuna ekarriko duelakoan. Dolarrak, batetik, AEBetako eragin inflazionistak mundu guztira hedatzen ditu. Bestetik, dolarraren hegemonia II. Mundu Gerraren ostean sortu zen AEBk munduko BPGren erdia baino gehiago zuelako. Posizio hori galtzen joan da 70eko hamarkadatik hona, eta dolarrarekiko konfiantza galtzen hasi da. Beraz, gero eta ahots gehiago entzuten dira moneta eredu berri baten beharra eskatzen dutenak.

Inoiz baino diru gehiago dago merkatuan, baina aldi berean likidezia falta ere badago. Gobernuak eta Banku Zentralak dirua sartzen ari dira etengabe eta, hala ere, konfiantza falta hor dago. Zergatik sortu da konfiantza falta hori?

A. ETXEBESTE. Likidezia badago edo ez dago? Banku Zentralek dirua ematen duten neurrian bada. Baina ez du zirkulatzen. Zergatik? Konfiantza falta dagoelako. Subprimek hipoteken porrota ekarri du, batez ere AEBn, baino Subprime krisia txinparta baino ez da izan, gero beste hainbat produktuetara hedatu dena. Oraindik ez daude garbi bankuen kontuak, zenbateko zorra duten, eta horrek mesfidantza sortzen du. Horregatik bankuek ez diote elkarri dirurik ematen. Horrek zenbait bankuri kaudimen falta dakarkio, finean, dirua ez baduzu berritzen, balioa galtzen doalako.

Dolarraren krisialdia aipatu du Mikelek. Batez ere petrolioa duten herrialdeek, eta beste herrialde indartsu batzuek, Txinak esaterako, orain arte erreserba guztiak dolarretan izan dituzte, eta orain erreserbak beste moneta batzuetan ere izateko asmoa agertu dute. Ez dakit euroak erreserba izan nahi ote duen, denak esaten ari dira euroa indartsuegi dagoela, hau

“Burbuila finantzarioak sortu dira han eta hemen. Ekonomia finantzarioaren eta errearen artean oreka behar da, eta gertatzen dena da ekonomia finantzarioaren hazkundera ekonomia errearen baina hamar aldiz handiagoa dela”

A. ETXEBESTE

ez dela benetako paritatea, paritatea beherago dagoela, eta hori txarra da esportaziorako. Beti iruditu zait estatubatuarrek nahi duten neurrian kotizatzen duela dolarrak: indartsu egotea interesatzen denean indartu egiten da, eta ez denean interesatzen, ahuldu. Txinatarrekin sistema hau izan dute orain arte: zuk produzitu eta nik kontsumituko dut. Kontsumitzeko dirurik ez badut, zuk fidantzan emango didazu, zorra izaten utziko didazu. Eskema horretan zorretan sartu eta moneta debalatu egiten da. Baina eskema hori egin da zegoen, eta ondorioak garbi zeuden.

M. ZURBANO. Eskema hori II. Mundu Gerraren ostean dagoeneko aplikatzen zen Japoniarekin. Orain Txinak eta ekialdeko beste herrialde emergenteek hartu diote erreleboa Japoniari. Horren azpian zer dago? Elementu ukiezina: hegemonia. Hori esplikatzeke ez dago ez datu ekonomikorik ez beste ezer, hegemonia soilik. Hegemonia horrek eman die munduko eragileei konfiantza. Beren altxorrean dolarrak izategatik, noizbait aldatzeko aukera izango dutela espero dute. Baina demagun altxorrean milioika eta milioika dolar dutenek, denek batera, dolar horiek aldatzeko eskatuko balute. Kaosa litzateke.

A. ETXEBESTE. Baina inori ez zaio komeni hori, eta horregatik ez da gertatzen.

M. ZURBANO. Ados. Baina konfiantzarena oso gai ahula da. Txinatarrek, arazo politiko bat dela medio, dolarrak eurotan edo yenetan aldatu nahi izatea, edo

petrolioaren merkaturan Europak sartu nahi izatea, nahikoa litzateke, ez dena pikutara bidaltzeko, baina bai AEBetako eta munduko ekonomian arazo larriak sortzeko.

Mikel, ARGIAko artikulu batean zenioen AEBen eta dolarraren hegemonia azkenean daudela, baldin eta konfiantza hori urratzen baldin bada. Zer elementu ikusten dituzue konfiantza hori urratzeko?

M. ZURBANO. Nola liteke munduko zorrik handiena duen herriak, defizit fiskal eta kanpo defizit larriak dituen herriak hegemonia izatea? Aldagai makroekonomikoak erakunde multilateralek gainerrako herrialdeei exijitzen dieten neurrian mantentzeko, AEBk goitik behera aldatu beharko lukete dena. Horrek dakar konfiantza galera. Baina ekonomikoki oraindik sendo mantentzen da, munduko BPGren %20 inguruan dabil. Ez du zerikusirik duela 50 urteko datuekin, munduko produkzioaren erdia bere esku baitzegoen orduan, baina oraindik AEBetako ekonomia ardatza da. Nik artikuluan ez nuen AEBetako hegemoniaren galera aurreikusten, orain arte ezagutu dugun ereduaren galera baizik. Ez dakit irtenbidea zein izango den, baina aipatu dugu txanponaren hegemonia konpartitzeko proposamen batzuk badaudela. Nonbaitetik jotzekotan, hortik jo beharko da. Finean, ulertezina da moneta bakar batek horrelako erantzukizuna izatea mundu mailako fluxu ekonomikoak bideratzeko. Hori ez da inoiz gertatu historia garaikidean. Urrea izan da moneta sistemaren azken erantzule. Libraren hegemonia garaian ere libra eta errearen arteko truke sistema bat zegoen.

Ikuspegi liberaletik beti esan izan da merkatuak beren kabuz autoerregulatzen direla. Baina banku zentralak, gobernuak, dirua sartu eta sartu ari dira. Horrek zalantzan jartzen du autoerregulazioaren mitoa? Bestetik, zein neurritan da justua edo etikoa, bankuek irabaziak daukatenean patrikaratzea eta porrotaren usainean diru publikoa orekatzeko?

A. ETXEBESTE. Sistemak izan beharko luke: ondo doanean ondo doa, eta gaizki doanean gaizki doa eta kito. Baina enpresen jarrera hauxe da: gauzak ondo doaz eta ez sartu; orain gaizki doaz eta lagundu ezazu, sikiera tipoak jaitsiz. Oraingo diru publikoa ez doa bankuetara eta enpresetara, gehiago doa familietara, zergen murrizketara, eskaera bultzatzeko asmoz. Gainera esan dugu diru injekzio bat dagoenean burbuila sortzen dela, burbuila lehertu, dirua merkatu, berriro injekzio bat egin eta beste burbuila bat sortzen dela. Arazo bat dugulako berriz ere dirua injektatu behar dugu? Sua gasolinarekin itzaltzea da hori. Erregulazio berri bat behar da, beste arau batzuk behar dira.

M. ZURBANO. Lehen aipatutako 90eko hamarkadako krisian, Ekialdeko herriek (Indonesia, Malaysia, Hego Korea eta abar) azkarrago erreakzionatu zuten, estatuek esku hartzeko ahalmen gehiago zutelako. Eta zenbait azterketek estatu horien garapenaren arrakasta estatuen esku-hartzeari egozten diote. Merkaturaren autoerregulazioaren dogma horretan fede handirik ez zuten izango, eta horrek babes neurriak hartzea bultzatu zituen. Herrialde emergenteen rola paradoxikoa da: Subprime finantza krisian, besteak beste, Hego Koreako, Kuwaiteko edo Singapurreko bankuak izan dira salbatzaile. Herrialde emergenteen potentzialtasuna izugarria da eta erabat aldatuko du munduko ekonomiaren ikuspegia.

A. ETXEBESTE. Gogoan dut, garai batean, Japonia punta-puntan zebilenean, *Rising Sun* izeneko film bat egin zutela, non japoniarrak AEBen jabe egiten ziren. Alarma piztu zen. Bazirudien AEBk beherako bidean zeudela eta Japonia gora zihoala. Baina gero Japoniak oso krisi gogorra izan zuen, finantzarioa, honen antza handia duena. Kosta egin zaie hortik ateratzea erabaki zorrotzik ez zutelako hartu. Alde handia dago hor. Amerikarrek historia ekonomikoan zer edo zer erakutsi badute, azkar erreakzionatzeko ahalmena izan da. Ziur nago, datorren hamarkadan dolarra indartsu egotea nahi badute, lortuko dutela. Iruditzen zait, dolarra ahul dagoenean ere aurrez diseinatutako sistema baten ondorioz dela. Finean, herrialde emergenteekin ikusten dudana da, gauzak aldatuko direla, baina seguruenik horren atzean diseinu bat egongo dela.

“**A**tzeraldi larri baten
 aurrean, Txinak eta Indiak
 deskoneksioaren aldeko apustua
 egingo lukete agian. Herrialde
 emergenteen merkatu indartsua sor
 liteke, eta horrek hankaz gora
 jarriko lituzke gaur egungo egitura
 eta aldagai ekonomikoak”

M. ZURBANO

M. ZURBANO. Baina zu aipatzen ari zaren garai hartakoa, 70 eta 80ko hamarkadan Alemania eta Japonia lokomotoreak zirenekoa, eta gaur egungo egoera ezberdinak dira. Ez gara 100 milioi pertsonaz ari. 1.000 milioi pertsonaz ari gara Txinaren kasuan, eta ia beste horrenbeste, Indiaren kasuan. Pisu handia da hori. Eremu ekonomiko emergente izugarriak dira. Eta ez hori bakarrik; atzeraldi larri batek kalte handia egingo lieke herrialde emergentei %60 Mendebaldeko herriei esportatzen dietelako, eta horren aurrean, Indiak edo Txinak agian deskoneksioaren aldeko apustua egingo lukete, hau da, Mendebaldeko herriekiko duten menpekotasuna leundu. Hegoaldeko herrialde emergenteen merkatu indartsu bat sor liteke, eta horrek hankaz gora jarriko lituzke gaur egungo egitura eta aldagai ekonomikoak. Horrek ez du zerikusirik 70eko eta 80ko hamarkadako egoerarekin eta hipotesi moduan nahiko gauzagarria da.

A. ETXEBESTE. Herrialde emergenteek, lehen, hazkuntza kanpoko diruz finantzatzen zuten (Argentina eta Mexikoko kasuak, esaterako). Diru hori gero itzuli egin behar zen eta oso hazkunde hauskorrek ziren. Eskema hori aldatu egin da. Lehen defizita zuten bezala, orain herrialde emergenteek superabita dute. Hazkundera, beraz, askoz sendagoa da. Baina estatubatuarrek esaten dute: gure zorra ez da gure errua soilik, ez da guk gehiegi kontsumitzen dugulako,

zuek kontsumitzen ez duzelako baizik; has zaitezte kontsumitzen eta, horrela, oreka ditzagun gure kontuak. Hori da haiek proposatzen dutena.

M. ZURBANO. Keynes-ek berak, Bretton Woods-eko akordioak negoziatzen ari zirela, hauxe proposatu zuen: kanpo balantzaren ikuspegitik, egoera defizitarioak ez hainbeste zigortzea; alderantziz, egoera superabitariorak zigortzea. Gaur egun kontrakoa gertatzen da. Dena dira defizitaren kontrako neurriak. Andonik esan du zein den estatubatuarren jarrera: gu prest gaude lokomotorea izateari uzteko, baina zuek kontsumitzen hasi behar duzue. Eta jarrera hori, neurri batean, arrazoizkoa da.

A. ETXEBESTE. Lehen esan duzu AEB dela zor handiena duen herrialdea. Bada, mundu mailan, termino absolutuetan bigarren zorrik handiena Espainiarena da. Eta termino erlatiboetan, %9arekin, Espainia da lehenengoa, zorrik handiena duena. Mexikoko debaluazioa bere defizita %4,5ean zegoenean gertatu zen, eta Indonesiakoa %5ean zegoenean. Espainiak defizita %59an izanda, debaluazio ahalmunik ez izatea nola ordaindu behar du? Nola ajustatu behar du hori? Inflazioaren bidez. Baina inflazioak esan nahi du lehiakortasuna galtzen duzula. Eta lehiakortasuna galtzen baduzu, langabezia daukazu. Lehengo batean, *Wall Street Journal*-en edo *Financial Times*-en, Zapateroren garai onari buruzko iruzkinak zera zioen: Ez al zaio damutuko Zapaterori irabazi izana?

M. ZURBANO. Espainiako eta AEBetako ekonomiak alderatuz, AEBetako enpresa industrialek kaudimena daukate eta Espainian ez. Espainian ez dago dagoneko oinarri industrialik, turismoa eta zerbitzuak besterik ez daude. Zorionez Euskal Herrian oraindik oinarri industrial polita daukagu.

Euskal Herriko ekonomia sendo ikusten al duzue etor daitekeen krisialdiari aurre egiteko?

M. ZURBANO. Bai. Baina krisiaren eraginak hor egongo dira, mailegutza arazoa hor egongo da. Europako merkatua ahultzen bada, horrek euskal industriari ere eragina izango du. Baina, oro har, posizio ekonomikoa eta, batez ere, produktiboa, oso bestela-

“**H**ezkuntzan eta berrikuntza prozesuetan buru belarri sartu behar da; batetik, enpresen berrikuntza behar da, baina gizarte mailan garapen proiektu sendo bat ere behar da”

M. ZURBANO



koa da estatuan eta Euskal Herrian. Espainiako industria etxebizitza eraikuntzan eta turismoan oinarritu da azken hamar urteetan.

A. ETXEBESTE. Arriskua, azken finean, oso kontzentratuta dago.

M. ZURBANO. Espainiako Estatuko azken urteetako hazkundeak ezberdintasun handiak izan ditu Europarekiko. Hazkundeak izaera estentsiboa izan du Espainian: etorkin asko etorri da, lan merkatuan sartu dira eta horiei esker lortu da produkzioaren eta errentaren hazkundera, eta ez berrikuntzak produktibitatearen hazkundera ahalbidetu duelako. Ez dauka hazkunde egonkor eta iraunkorrerako oinarririk. Kanpoko baldintza ekonomikoek ahalbidetzen eta uzten badute, eredu horrekin jarraitu daiteke. Baina nahikoa da, orain gertatu bezala, kanpoko ekonomian geldialdi txikiena, hori dena behera erortzeko.

A. ETXEBESTE. Espainiak, euroan sartzean, egitura funtsak jaso zituen, oraindik Alemaniaren hazkundera txikia zen, interes tasak baxuak ziren. Ondorioz, Espainian diru oso merkea eta hazkuntza oso altua izan ziren, eta hori ez da konbinazio ona izaten. Espainiak tasa altuagoak behar izan ditu azken urteetan. Europa

osorako tasa bakarra dagoenez, orain arriskua da Alemaniak tasa altuak behar izatea indartsu dabiltzalako, Espainiak tasak txikitzea behar duen bitartean.

Euskal ekonomiak nola prestatu beharko luke datozen urteetan, krisialdiaren aurrean?

A. ETXEBESTE. Barne kontsumoa ahulduta egongo da. Euskal enpresa asko kanpora begira daude, kanpoan lanean ari dira, eta hori da bidea. Ez dute merkatu lokaletan geratu behar, ahulduta egongo direlako. Baina hori ederki dakite, urte asko daramatzatelako horretan.

M. ZURBANO. Hezkuntzan eta berrikuntza prozesuetan buru belarri sartu behar da, zentzu zabalean hartuta. Batetik enpresen berrikuntza behar da, baina gizarte mailan garapen proiektu sendo bat ere behar da, guztion inplikazioak bermatuko duena. Hemen kontzientzia soziala badago, oinarri teknologikoa ere bai. Hor dago, besteak beste, Berrikuntzaren Euskal Agentzia.

A. ETXEBESTE. Esaten ari garena oso iluna izan ez dadin esan behar da lehengoan irakurri nuela



“Herrialde emergenteek ezin dute gure parametrotan garatu, munduak ez duelako behar adina ematen. Hortaz, aldaketa etorriko da ezinbestean”

A. ETXEBESTE

aditu batek dioena: datozen 17 urteetan azken 100 urtetan adina berrikuntza teknologiko eta asmakuntza izango direla, eta azken 100 urteetako berrikuntzak izugarriak izan dira. Enpresek oso adi egon beharko dute aurkikuntza horien aurrean.

M. ZURBANO. Eta horrek bi abiaturako gizartea ekar dezake: sektore bat egoki txertatu daiteke dinamika horretan eta beste bat kanpoan gera daiteke. Administrazio publikoko eragileek tentu handiz ibili beharko dute bien arteko zubiak eraikitzeke, haustura gerta ez dadin, kohesio soziala ere ezinbestekoa delako ekonomiaren garapenerako.

Herrialde emergenteen garrantzia nabarmendu duzue. Zer gertatuko da herrialde horiek mendebaldeko herrialdeak adina hazten badira? Mendebaldeak ez du apalduko hainbeste bere kontsumo maila eta, nola eutsiko dio munduak horri guztiari?

M. ZURBANO. Hor sostengarritasuna sartzen da. Dimensio hori ez dugu orain arte aipatu baina funtsezkoa da.

A. ETXEBESTE. Energia iturrien sostengarritasunari dagokionez, petrolioaren prezio altuetan badago espekulazioa, neurri batean, baina petrolio falta erreala ere badago. Dubaiek esan du petrolio bukatzen ari zaiola, Mexikori ere bukatzen ari zaio... Aldaketa etorriko da ezinbestean. Prozesua ez da samurra izango, prezio askoz altuagoak ikusi beharko ditugu. Herrialde emergenteek ezin dute gure parametrotan garatu, munduak ez duelako behar adina ematen. Hortaz, aldaketa bat etorriko da. Ez dakidana da berriz ere energia nuklearrera joko dugun, beste aurkikuntza teknologiko batzuen aukera izango ote den, baina garapenak beste bide sostengarriago baten bidez etorri behar du, ez dagoelako beste biderik.

M. ZURBANO. Galdera funtsezkoa da, erabat baldintzatzen duelako herrialde emergenteen potentzialtasuna eta kokapen estrategikoa. Andonik esan bezala, gure parametroetan, ez dago guztientzat baliabide nahikorik. Kutsadura ere hor da, eta guk sortutako eredu ekonomikoaren ondorioa da. Etorrizunerako hazkunde baldintzak aldatu behar dira eta aldaketa horren zantzuak dagoeneko badaude. Kontzientzia soziala badago, baina gero hori ez da eredu ekonomikoan islatzen eta gauzatzen. Erronka handia dugu aurrean.



Mª Carmen
Gallastegi*

Munduko egoera ekonomikoa

"Azkenean, ekonomia ondo bideratuko da, higiezin aktiboen prezioak beren balio errealetik gertuago dagoen egoerara itzuliko dira, petrolioaren prezioak, epe ertainean goranzko joeran izango badu ere, ez ditu epe laburrean hain igoera azkarrak eta handiak izango, eta banku zentralak tentsio inflazionisten eta kreditu krisien arteko nahasteak kudeatzen ikasiko dute"

Hainbeste kezkatzen gaituzten aldagai makro-ekonomikoak (inflazioa, langabezia tasa, aktibitate tasa, soldadak, Barne Produktu Gordinaren hazkundera eta abar) hainbat herrialdeetan, jarduera ugari dituzten eta egoera desberdinetan dauden milioika indibiduoren ekintzen eta erabakien emaitza dira. Bizi dugun aktibitate ekonomikoen globalizazio egoeran, finantza kapitalen mugikortasun perfektua dago, eta ondasunen eta zerbitzuen mugimendu librea, baina ez perfektua. Testuinguru horretan, indibiduo jakin batzuek munduko mutur batean egiten dutenak, beste edozein herrialdeetan eragina du, harreman anitzen bidez. Une honetan munduko ekonomian gertatzen ari dena adibide garbia da.

Guztia AEBetan hasi zen, esparru jakin batean, finantza arloan, eta higiezin sektoreko sukarrak zorra itzultzeko berme egokirik gabeko pertsonen hipoteka handiegiak ematea ekarri zuelako hasi zen. Arazoak antzematen hasi ziren, eta subprime

izeneko hipoteka horiekin zerikusia zuten bankuek eta finantza konpainiek ordaindu gabeko hipotekei aurre egiteko gai ote izango ziren zalantzak sortu ziren. Horren eraginez, sektorearenganako konfiantza krisia piztu zuen, eta gaur egun konfiantza krisi horrek hor dirau, AEBetako Erreserba Federalak eta krisiak eragindako beste ekonomietako Banku Zentralek finantza sisteman likidezia kopuru izugarriak injektatu dituzten arren. Bankuek ez diote elkarri mailegurik egin nahi, banku arteko merkatuan ohikoa zena. Eta ez dute egin nahi, mailegu hartzailearen finantza egoera erreala zein den ez dakitelako eta ez direlako fidatzen. Sisteman likidezia badago, baina konfiantza faltaren eraginez, kreditu fluxua ez doa benetan behar duten jarduera eta entitateetara, eta eraginkorra litzateke kreditu hori izatea.

Banku boteretsuak porrotetik "salbatzeko" Erresuma Batuko eta AEBetako gobernuak egiten ari diren saiakerek, finantza krisiaren dimentsio izugarria adierazten dute. Baina ez hori bakarrik. Hainbat hilabete-



tan pentsatu zuten ekonomia erreala (errenta erreala, soldata errealak, enplegua eta beste aldagai batzuk zehatzen dituena) finantza krisitik isolatzea posible zela. Isolatzea ordea, aurreikusitakoa baino askoz gaitzagoa izaten ari da, ia-ia batera beste bi fenomeno kezkarri gertatu direlako. Sektore erreala kaltetzen ari da batetik, petrolioaren eta eratorrien ezohiko mailetarainoko garestitzearengatik; eta bestetik, higiezinaren sektoreko krisiaren eraginez kontsumo pribatuaren uzkurteagatik (Espainiako ekonomian esaterako). Ikus dezagun zergatik.

Petrolioaren garestitzeak eta erregai fosilen erabilek dakartzen ingurumen arazoek (aldaketa klimatikoak, bereziki) energia iturri alternatiboak bilatzea bultzatzen du. Horien artean daude bioerregaiak; bioerregaiak ekoizteko lurra behar da, eta ekoizpen faktore hori nekazaritza tradizionalerako ere beharrezkoa da. Lurraren faktorearen erabilera berri honek oinarritzko elikagaiak ekoizteko beharrezkoak diren zerealen prezioa garestitzen du. Tentsio inflazionistek (petrolioaren, zerealak, oinarritzko elikagaiak) banku zentralak bidegurutzean jartzen dituzte. Inflazioa kontrolatu behar dute (eta, beraz, ezin dute moneta politika espantsiboa bultzatu) baina, era berean, kredituen krisia

saihesteko sisteman dirua injektatu behar dute.

Egoera konplexua da, zinez. Azken ehun urtetan eskaera krisiak jasan ditugu eta horiei aurre egiten ikasi genuen. Eskaintza krisia ere izan zen, eta errezeta ekonomiko alternatiboak probatu behar izan ziren. Orain bien konbinazioa dugu aurrean, eta diseinatzeko eta praktikara eramateko batere erraza ez den neurrien “dosi zehatza” behar du.

Hala ere, ez da lehen aldia horrelako ziklo espantsibo batek desazelarazioa jasaten duena, eta ez da azkena izango. Azkenean, ekonomia ondo bideratuko da, higiezinaren aktiboen prezioak beren balio errealetik gertuago dagoen egoerara itzuliko dira, petrolioaren prezioak, epe ertainean goranzko joeran izango badu ere, ez ditu epe laburrean hain igotera azkarrak eta handiak izango, eta banku zentralen tentsio inflazionisten eta kreditu krisien arteko nahasteak kudeatzen ikasiko dute. Baina gobernuak ere lan egin beharko dute, eta eskura dituzten tresnak erabiliz egin beharko dute gainera: politika fiskala, zorpetzea eta arautze publiko egokiak.

** Teoria Ekonomikoan katedraduna (EHU).*



Finantza krisia eta gu

"Hor agertzen gara gu: nagusiki, bankuetan ditugun gordailuak arriskuan egon litezkeenik pentsatu(arazi) ere egin nahi ez lukeelako inork (bonba nuklearra). Eta azkenik, baina ez alferrik, mailegu ezak (*credit crunch*) ekonomiaren martxa gainbehera jarriko lukeelako (Tchernobil)"

Demagun argindar enpresa bat. Erabateko desregulazioa aldarrikatzen du, hamarkadatan, bere sektorerako. Eta demagun desregulazioa lortu egiten duela gainera, baita zentral nuklearren ustiapenerako ere. Mozkinak handitze aldera zentralerako segurtasuna murrizten badu, argindar enpresako akziodunek dibidendu handiagoak jasoko dituzte urtez urte, baina arazo potoloren bat gertatuz gero (gai nuklear kutsakorren ihes moduko bat, kasu) 112 zenbakira deitzen dute argindar enpresakoek eta Estatu Jaunari eskatzen diote larrialdi plana ezar (eta ordain) dezala. Ahal bezain azkarren, beharrik.

Ezer egin ezean estatuak berak jasango duen (zehar?) kalte itzelaren jakitun, ihes nuklearraren kostuari aurre egiten dio estatuak. Nahiz eta, bistan denez, segurtasunaren argindarra ekoiztearen beraren kostu saihestezina beharko lukeen. Baina desregulatuz gero, argindar enpresa guztiek lukete arrisku moral hori, alegia: segurtasun neurriak arintzeko tentazioa, jakinik, istripu larriren

bat gertatuz gero (eta kaltetuak askoz gehiago izango liratekeenez), estatuak esku hartuko duela, faktura bere gain hartuz gainera.

Baina ez dakit zergatik bururatu zaidan adibide arraro hau; natorren finantza krisira. Ohikoan, bankuek jardunean euren dirua ere arriskatu ohi dute. Alegia, legez, kapital eskakizun minimoak dituzte euren eragiketarako; ekonomiako beste jardueretan (torloju lantegi bat, taberna bat edo artalde bat, kasu) ez dago kapital eskakizun minimorik, berezko baliabideen eskakizun minimorik. Osoki zorpetuz finantzatu daiteke jarduera bat, teoriarik. Finantza bitartekarien kasuan ordea, bankuek duten kapitalak (berezko baliabideak) mugatzen du euren jarduera (mailegu ahalmena). "Tamainak", nahi baduzue. Eta hori hala izan da hainbat hamarkadetan zehar: bankuek mailegu batzuk ematen zizkieten bezeroei eta maileguen ordaina jaso ahala, mailegu berriak emateko baliabideak (eurenak eta besteenak) berreskuratzen zituzten.

Baina desregulazioarekin batera, finantza berrikuntza ere izugarri ugaldtu da: bankuek beste batzuegandik biltzen duten diruaren (pasiboaren) desintermediazioa eman da (inbertsio funtsak ugaldtu dira, kasu, banku gordailuen alternatiba lez; erabat espekulatiboak diren *hedge fund*ak tartean) eta produktu eratorrien erabilera orokortu egin da (konplexuagoak dira berez, aldaketen eragina eta abiada biderkatzen dituztelako).

Orduan sortu zen “*originate and distribute*” eredu, hainbat bankuk gogotik jorratu dutena. Zertan datzan? Kapital eskakizunak bankuen mailegu ahalmena (jarduera) mugatzen duenez, emandako maileguak titulu bihurtu eta saldu. Saldukoaren gainean kapital eskakizuna desageritzen da (bankua ez den zera batek erosten badu, noski) eta salmentak dirua dakarkio bueltan bankuari. Diru hori mailegu berrietara bidera daiteke (*originate*, beraz) eta titulu bihurtu ondoren, berriro, hirugarren bati saldu (*distribute*, hortaz). Beraz, bezeroari dirua mailegatu eta, bezeroak zorra ordaindu aurretik, mailegua saldu egiten du bankuak, mailegu berriak bezero berriei emateko ahalmena lortuz.

Hainbat herrialdetan eman den etxebizitzaren prezioen burbuilan zeresan handia izan du interes tasa baxuen eta “*originate and distribute*” ereduaren koktel lehergarriak. Lehenak maileguen eskaria puztu du, bigarrenak eskaintza.

Subprime delakoen kasu konkretuan ikusi da garbier gertatutakoa: hainbat bankuk sendo jardun dute *originate* egiten (maileguak ematen), *distribute* zela medio, maileguak bueltan jasoko ote zituzten kezka handirik gabe. Kalteak beste batek jasango dituen heinean, errazagoa baita beti “deskuidoren” bat izatea.

Koktela pozoigarriago bihurtzeko, titulu horiek rating agentzia entzutetsuen nolabaiteko onespena zuten beti eta, kasu batzuetan, osagarri bat ere bai: titulua konplexuago bihurtzen zuen produktu eratorriren bat. Zenbat eta titulua konplexuagoa izan, arazorik balitz, orduan eta zailagoa izango da gero tituluaren balioa (prezioa) zehatz-mehatz jakitea eta, ondorioz, eroslerik topatzea.

Nor zegoen baina mailegu titulizatu horien erosleen artean? Zenbait banku, mota guztietako inbertsio funts publiko nahiz pribatuak (bankuren

“Beraz, bezeroari dirua mailegatu eta, bezeroak zorra ordaindu aurretik, mailegua saldu egiten du bankuak, mailegu berriak bezero berriei emateko ahalmena lortuz”

batekin harreman zuzena zutenak asko) eta, ez gutxitan, bankuek eurek sortutako SIV izeneko bitarteko enpresak (Structured Investment Vehicle). Enpresa horiek, bankuen kapital eskakizunaren uztarririk aske, zorpetuz erosten zituzten tituluak: Asset Backed Commercial Paper (ABCP) izeneko zorra jaulki (hau da, aktiboaren babespeko epe laburreko zorra) eta bankuei euren Asset (aktiboak, alegia, maileguak) erosi.

AEBetan eta *subprimen* inguruan piztu zen finantza krisiaren sua (berankortasuna, finean, galerak), hainbat titulutara zabaldu da eta banku nahiz ez bankuak erretzeko arrisku latza piztu du, zalantzak eta, batik bat, mesfindantza zabalduz: une batean galdu bai, baina berreskuratzen erraza ez dena. 112 eta banku zentralak suhiltzaile.

Hor agertzen gara gu: nagusiki, bankuetan ditugun gordailuak arriskuan egon litezkeenik pentsatu(arazi) ere egin nahi ez lukeelako inork (bonba nuklearra). Eta azkenik, baina ez alferrik, mailegu ezak (*credit crunch*) ekonomiaren martxa gainbehera jarriko lukeelako (Tchernobil).

INIGO AZKONA



Solange Mariluz*

Modelo baten krisia

"Gaur egun zertan dira etxeak ehundaka galdu eta galtzen ari diren familia horiek? Nehork ez daki. Nola lagunduko dira? Karitate ekintzeri esker? Berrikitan New Orleanseko etxerik gabekoen alde egin den bezala?"

Estatu Batuetako krisiaz ematen den azalpena *subprime* kredituei lotua dago. Baina 80. hamarkadaz geroztik erregulariki gertatzen ari diren krisiak behatuta, erran daiteke finantza modelo delako krisian.

80. hamarkadan AEBetan, eta orohar herri aberatsetan, merkatu finantzarioak askatu behar zireneko iritzia nagusitu zen. *Laissez faire (les hommes)*, *laissez passer (les marchandises)*¹ lelo famatuak arras ongi irudikatzen du orduan zabaldu zen doktrina.

Bankuak "egiten" utzi genituen; eta munstro handiagoak bilakatu ziren. Kapitalak "pasatzen" utzi genituen; eta horrela, finantza sistemak globalizatu egin ziren eta ekonomien arteko menpekotasuna azkartu. Sistema honen eragile guztiak (bankuak, burtsako agentziak, langileak...) lehian sartu dira gero eta etekin handiagoa ateratzeko. Hala, eragile horien notazioa, lorturiko dirutzaren arabera finkatzen da. Horren lekuko, aste gutziz ekonomiako komunikabideek kaleratzen dituzten halako enpresa buru edo burtsako agenteen sailkapenak.

Dirua nondik lortu bilakatu da eragile horien iparratza. Erdi mailako familiei onartu zitzaizkien maileguen iturria 90. hamarkadan agortu zenean, bertze bat aurkitu behar zuten, eta horra hor familia pobreak. Orain arte familia xume horiek posible ez zuten *amerikan dream* hura, etxe propioa izateko ametsa alegia, eskuragarri eman zitzairen. Nola? Inte-

res tasa gorakorreko kreditua eskainiz, hastapenean gutxi ordainaraziz, baina, urteak joan hala, gehiago ordainaraziz. Familia horiei ekonomia sendoa zela sinetsarazi zitzairen. Goratuz joango zitzairen zorra arazorik gabe ordaintzen ahalko zutelakoan, tira hala kredituak hartu zituzten konfiantza osoan.

Sistema sofistikatu baten gibelean konstante simple bat: aberatsak pobreen bizkar aberastu.

Baina, zenbait urteren buruan familia horiek mailegua ezin ordainduz suertatu dira, kopuru handian. Batzuen ustez, 1929az geroztik sekulan ezagutu ez den atzeraldiaren atarian gintezke.

Krisi honek bizi garen sistemaren zinismoa erakusten digu. Bankuak, familia xumeei *subprime* kredituak banatzeko, diru bila ibili ziren. Nola? Produktu finantzario biziki ongi sarituak eskainiz, familiei ateratako interes tasa altuei esker. Sistema ongi borobiltzeko, bankuak antolatu ziren produktu finantzario hauek biziki ongi notatuak izan daitezten². Honela, AEBetatik nahiz Europa eta Asiako herrietatik, sekulako fondoak eskuratu zituzten.

Hemen konstante bat dugu: batzuek aberastasunak metatzen dituzte bertzeen kontu.

Gaur egun zertan dira etxeak ehundaka galdu eta galtzen ari diren familia horiek? Nehork ez daki. Nola lagunduko dira? Karitate ekintzari esker? Berrikitan New Orleanseko etxerik gabekoen alde egin den bezala?

1 "Utzi (gizakiak) egiten, utzi (merkantziak -eta kapitalak-) zirkulatzen"

2 Finantza sistemako profesionalak AAA nota hobereana eman zien.

3 Adibidez, %4ko inflazioak, 60€ euroko gastu gehigarri eragiten 1.500€ hilabetea gastatzen duen familia batentzat.

Hegoko herriak egoeraz baliatzen presentzia azkartzeko:

Badira batzuk afera honetaz ederki baliatzen ari direnak: hegoko herriak eta bereziki Txina eta India. Bankuak finantzaketa behar gorrietan direla eta burtsako akzioen gainbehera baliatuz herri horiek badute dirua non ezar eta Iparreko enpresen zuzendaritzan sartzen ari dira.

Gurera zabaltzeko arriskuak:

Hemen, AEBetako krisiaren eragina gehiegi sentitzen ez bada ere ez al dira zantzu bertsuak ageri?

Euriborraren emendioak zorra nabarmen handitu die milaka familiei, higiezinen krisiaren arriskua azkartuz. Gasolinaren prezioaren gorakada sentitzen hasiak gara. Eguneroko kontsumoak garestitu dira, gure buxeta bete betean kolpatuz³. Euroaren dolarra-

rekiko preziazioak esportazioak garestitu ditu. Bankuen zailtasun gorakorrek eta burtsen gora beherek enpresen finantzazioa zailtzen dute. Oro har, herri aberatsetako hazkundera ustez baino apalagoa iragarria da datorren urterako.

Gutziz zilegi da zalantzak izatea etorkizun hurbileko ekonomiaren osasunaz. Baina 80az geroztik erregulari iragaiten ari diren krisiak ekidin nahi baditugu, eredu ekonomiko guztiz aldatzea suposatzen du. Batzuen ustez, optimistenak, *laissez faire, laissez passer* ereduaren agonian gintezke, bertez batzuentzat aldiz, krisia txiki bat baizik ez da laster konponduko dena, kalte "kolateral" batzuk eginez hala ere.

** Bernat Etxepare Lizeoko ekonomia eta gizarte zientzietako irakaslea.*

XXI. mendeko lehen krisia?

"Hainbat teoria ekonomikok dio gurea bezalako ekonomia garatuetan ziklo ekonomikoak gero eta leunagoak direla. Hau da, hazkunde ekonomikoak gero eta apalagoak dira, leunagoak, baina krisialdiak ere bai"

Ingurukoei krisialdian ote gauden galdetzen badiegu, horietako askok dena zein garesti dagoen esango digute (inflazioa), hipotekak zenbat igo diren (euriborra), enpresa batzuek kanpora joateko erabakia hartu dutela (deslokalizazioa) horrek dakarren enplegu galerarekin... gertuenekoari buruz hitz egingo digute, komunikabideetan ia egunero entzun daitekeenari buruz.

Baina gaurkoan nazioarteko egoera ekonomikoaz jardungo dugu eta, horrenbestez, benetan krisian gaudela esan al daiteke?

Esan dezakegu ekonomistek estanflazioa izenez ezagutzen dugun egoeran gaudela (geldialdia eta inflazioa batera, hau da, inflazio tasa altuak edo prezioen igoera, hazkunde ekonomiko baxuarekin edo barne produktu gordinaren hazkunde oso apalarekin batera). Hainbat erakunde ekonomikok eta nazioarteko instituzioek (ELGA, NMF...) bermatzen dute hori: datozen urteetarako aurreikuspenak ezkorrak dira. Adibidez, Nazioarteko Moneta Funtsak 2008rako barne produktu gordinaren %4,1eko hazkundera aurreikusten du mundu mailan, 2007an %4,8 aurrei-



Monica Gago*

INIGO AZKONA

“Beren produktuak nazioarteko merkatuetan saldu nahi dituzten gure enpresentzat euroaren indarra zorigaiztokoa da: nazioarte mailan gure produktuak saltzea gero eta zailagoa da, eta euroaren indarra desabantaila bihurtu da Europaz kanpoko ekoizleekiko lehian. Eta, lehen esan dudan bezala, aurrikuspenak ezkorrak dira”

kusten zuen bitartean, eta 2006an lortu zen %5eko hazkundetik urrun. Nabarmendu behar da 2008an Europa %1,6 mantsoan haziko dela eta AEB %1,6, beste herrialde batzuk, hala nola Txina, %10 inguru haziko direla aurrikusten den bitartean. Datu hauek ikusita, Europako eta AEBetako ekonomia arduradunak, Europako Banku Zentrala eta Fed (Amerikako Estatu Batuetako Banku Zentrala) ekintza bateratuak burutzen ari dira, AEBetan (gainerako ekonomia guztiak herrestan doaz munduko lehen ekonomia den AEBen atzetik) subprima hipotekek (arrisku altuko hipotekek) eragindako finantza arazoak konpontzeko helburuarekin. Horixe egin zuten aurtengo martxoan: bi bankuek ekintza hitzartua burutu zuten finantza sisteman likidezia injektatzeko (dirua sartzeko).

Europan, bitartean, aurrekaririk ez duen egoeran gaude; euroa oso indartsu dago, dolar ahulduaren parean, eta horrek hainbat alde positibo ditu, besteak beste, AEBetan turismoa egitea merkea delako edo petrolioaren prezio igoerak ez ditugulako hainbeste antzematen (petrolioaren prezioaren erreferentzia dolarrak baitira). Baina beren produktuak nazioarteko merkatuetan saldu nahi dituzten gure enpresentzat euroaren indarra zorigaiztokoa da: nazioarte mailan gure produktuak saltzea gero eta zailagoa da, eta

euroaren indarra desabantaila bihurtu da Europaz kanpoko ekoizleekiko lehian. Eta, lehen esan dudan bezala, aurrikuspenak ezkorrak dira.

Dena den, baikortasunak ere badu tokia: inoiz, eta berriro diot, inoiz ez diogu krisialdi bati aurre egin (baldin eta, azkenean, aurreikuspen guztiek dioten moduan, krisialdia iristen bada) hain egoera onetik abiatuta. Hainbat teoria ekonomikok dio gurea bezalako ekonomia garatuetan ziklo ekonomikoak gero eta leunagoak direla. Hau da, hazkunde ekonomikoak gero eta apalagoak dira, leunagoak, baina krisialdiak ere bai. Honen guztiaren adibide da euskal ekonomia: azkenaldian gure urte onenak bizi izan ditugu ikuspegi ekonomikotik begiratuta, barne produktu gordinaren hazkunde tasak oso altuak izan dira, eta langabezia tasak oso baxuak, inoiz ez bezalakoak. Horri guztiari esker, egoera ezin aproposagoan egingo diogu aurre balizko krisialdiari eta, espero dezagun, mundu mailan hain gordin aurreikusten diren efektuek ez digute hainbeste eragingo.

Honekin ez dut esan nahi krisi hau nabaritu ere egingo ez dugunik. Benetan denboran luzatu daitekeen egoera izan liteke, baldin eta agintariak ez badira lehen bai lehen lanean hasten, egoera zuzen bideratzen saiatzeko. Krisiari aurre egiteko hainbat tresna ekonomiko daude, baina egoera hain berria izanda eta konponbidea emateko orduan nazioarteko merkatuetan dagoen zalantza handia kontuan izanda (nola jokatu ez baitakite), espero dezagun ekonomia politikak aurrera eramateaz arduratzen diren eragileek tresna horiek modu egokian erabiliko dituztela.

** MUko Enpresa Zientzien fakultateko irakaslea.*

LARRUN pentsamendu aldizkaria
ARGIarekin batera banatzen da

Koordinatzailea: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefona:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.131. zenbakiarekin banatua,
2008ko apirilaren 6an)